

# ESKOLA AGENDAREN FOROA 2030 ORTUELLAN

*Posted on 18/12/2023 by Naider*

**Category:** [Albistea](#)

**Tags:** [Agenda 2030](#), [Agenda Escolar](#), [Ortuella](#)

Joan den ostiralean, abenduaren 15ean, Ortuellako Udalak 2030 Eskola Agendaren Hasierako Foroa antolatu zuen 2023/2024 ikasturterako. Bertan, Ortuellako hiru ikastetxeetako ekodelegatuek eta udaleko kide tekniko eta politikoei parte hartu zuten. Jardunaldian zehar, ikasleek ikastetxeak iraunkortasunaren arloan garatzen ari diren zereginak errepasatu ahal izan zituzten. Iaz Osasun eta Ongizateko 3. GJHaren inguruan egin zen udal-diagnostikoa berreskuratu zen, eta diagnostiko horri erantzuteko jardueraren plan bati forma ematera bideratu zen jardunaldia.

Udalak udalerrian dauden baliabideak adierazi zituen, baita datorren urtean 3. GJHaren inguruan egingo diren jarduerak ere. Ondoren, alkateak hitza hartu zuen Ekaineko Udal Foroan sortu ziren eskaera guztiei erantzuteko. Bertan, eskolek hainbat hobekuntza proposatu zituzten ikastetxeentzat eta udalerrientzat. Jardunaldia partaidetza-prozesu batekin amaitu zen. Bertan, ikasleak izan ziren protagonista, datorren urtean udalerrian GJH 3 bultzatzeko jardueraren plana zein izango den pentsatzeko eta erabakitzeko.

Naiderekin [Ortuellako Udala](#)rekin lan egin du azken urte honetan, ingurumenaren arloan, eta lan horren barruan, eskolei lagundu eta gidatu die 2030eko Eskola Agendaren testuinguruan.





